

Berdinduz

Proiektuaren testuingurua eta aurrekariak

Eraikuntza sektoreko langileen % 11 emakumeak dira, eta gainera administrazio-arloan edo arlo teknikoetan lan egiten dute. Obrak egikaritzen ez dago apenas emakumerik.

Gaur egun, sektoreko jarduerak gora egin du, baina, aldi berean, arazo larria dago belaunaldi-erreleborik ez dagoelako eta gazteek ez dutelako interesik sektorean; hortaz, egoera horretan, emakumeak sektorean lan egiten hastea konponbidetzat jotzen dute enpresek.

Bestetik, berdintasunari buruzko arautegia harrera ona izaten ari da enpresen antolaketa-kulturan, eta bat dator genero-desberdinkeria zuzentzeko mugimendu sozial globalarekin.

Berdinduz eraikuntzan prozesu hori azkartzeko sortu da, sektore maskulinizatu horretan eraldaketa posible dela erakusteko.

Berdinduz



Honako hauen lankidetzarekin:



5761 Ebazpena (EHAA, 246, zk., 2023-12-28koa)



900 20 30 30



info@lcpaisvasco@fundacionlaboral.org



Euskadiko Eraikuntza sektoreko Laneko Arriskuen Prebentzioan genero-ikuspegia txertatzen

Langileen hurrengo babes-mailarantz



BERDINDUZ proiektua Euskadiko Eraikuntzaren Lan Fundazioaren ekimena da eta Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak (OSALAN) honako hauen lankidetzarekin.

Fundazioaren Segurtasun eta Osasunaren ardatzean kokatuta, eraikuntzako segurtasun- eta osasun-baldintzak hobetzearekin lotuta dago eta sektoreko gizarte-eragileen lan-ildoei eta berdintasun-arloko Europako, Estatuako eta autonomia-erkidegoetako ildo estrategikoei erreparatzen die.



Fundazioaren arlo horretan jardueraren aurrekarietan antzemandako **sektorearen behar espezifikoak artatzeko** sortu da.

Enpresei laguntzen die berdintasun gaiei buruzko **arauak egoki betetzen**, hots, neurri zuzentzaileak bakarrik aplikatzen ez ezik, arlo hori laneko segurtasun eta osasunarekin lotzea eta erakundeetan generoagatiko desberdinkeriak eta diskriminazioak benetan laneko arrisku-faktoreak direla ulertzea ere.

Berdintasunari eta laneko arriskuen prebentzioari buruzko arautegiak lotzea palanka gisa aurkezten zaigu laneko arriskuen prebentzioa kudeatzeko sistemak berrikusteko eta eraikuntzako langileenganako prebentzio-ekintza hobetzeko.



Helburu handinahi hori hauetan gauzatzen da: **generandoprevention.com** webgunea tresna diseinatu eta martxan jartzean eta gai horiekin lotutako zereginak dituzten erakundeen profilen artean **zabaltzeko** jardura espezifiko batean.

Tresna digitalak berriazko edukiak bildu ditu, enpresan indartu eta aplikatzeko ekintzak barne. Dokumentazio-gordailu ordenatu bat ez ezik, erabiltzaileen **profil ezberdinetara egokitutako** informazioa ere badu, eta horrek ikaskuntza esperimentatzea eta arautegia identifikatu eta aztertzea ahalbidetuko du.



Enpresek
Fundazioari **bisita
pertsonalizatuak
eskatu ahal dizkiote**
tresna digital horri
buruzko informazioa
lortzeko.

